

EUSKAL SIDERURGIA, BIRMOLDAKETA ETA ETORKIZUNA

Mikel Navarro Arantzegi

ESTEko Ekonomia Departamentuko Irakaslea

Artikulu honen lehen atalean siderurgiak euskal industriaren barruan duen berealdiko pisua agerian uzten da. Ondoren, azpisektore siderurgiko bakoitzean (hots, siderurgia osatuan, altzairu berezietan eta altzairu arrunteko minisiderurgian) zeuden arazo ekonomiko desberdinak erakusten dira. Azkenik, hiru azpisektore siderurgikoetan krisiari aurre egiteko hartu diren birmoldaketa-neurriak azaltzen dira, baita geroari begira azpisektore hauetariko batzutan (siderurgia osatuan eta altzairu berezietan, alegia) dauden perspektiba beltzak ere.

Siderurgiaren pisua Euskal Autonomi Elkartearen ekonomian

Azterlari guztiek behin eta berriz nabarerazi dutenez, euskal ekonomi egiturak neurritz gaineko espezializazioa du metalgintzan. Eta metalgintza horren oinarrian sektore bat aurkitzen da: siderurgia. Sektore honen garrantzia ez datza metalgintzaren ekoizpen edo enplegu guztiaren aldean suposatzen duen ehunekoan soilik; kontutan hartu behar da, orobat, siderurgia metalgintzako prozesuaren sorburuan dagoela, eta, beraz, ondoren datozen metal-iharduera guztiak siderurgiak baldintzapetzen dituena. Hori dela eta, sektore honen nondik-norakoak ezagutzera iristen bagara, euskal ekonomiaren krisisa hobeki ulertu eta etorkizuna aiseago aurrikusi ahal izango dugu.

Begiratzen badugu siderurgiak 1985ean (EAE) Euskal Autonomi Elkartearen industriaren barruan zuen eragipenaz zera ikusten dugu (ik. lehen laukia):

-industriaren barne-ekoizpen gordin guztitik hamarren bat, gutxi-gorabehera, siderurgiari dagokiola;

-industriaren enplegu guztitik ere hamarren bat siderurgiari dagokiola;

-industriak kontsumitutako energia guztitik heren bat siderurgiari dagokiola;

-industriaren esportazio guztitik laurden bat, gutxi-gorabehera, siderurgiari dagokiola.

Hots, siderurgiak berebiziko pisua zeukan EAEko industrian 1985ean (gaur egun pisu hori pixka bat txikiagoa izango da), eta euskal

1. Laukia. Euskal Autonomi Elkarteko siderurgiak ekonomian duen eragi zenbait adierazle (1985)

	(1) Siderurgia	(2) Industria guztia	$\frac{(1)}{(2)} \times 100$
Balio erantsi gordina (faktore-kostutan)	94.829 M. pta	837.997 M. pta	% 11,3
Pertsonal okupatua	27.449	284.272	% 9,7
Energi kontsumoa	41.145 M. pta	109.919 M. pta	% 37,4
Esportazioak	160.492 M. pta	568.969 M. pta	% 28,2

Jakinturriak: Industri Sektorearen Kontuak 1985. Eusko Jaurlaritza.

2. Laukia. Hego Euskal Herriko siderurgiaren osakideak eta espainiar estatukoarekiko ehuna

Azpisektorea	Enpresa	Kokalekua	Espainiar Estatukoarekiko ehuna
Siderurgia osatua	Altos Hornos de Vizcaya (AHV)	Bizkaia eta Nafarroa	% 30
Altzairu bereziak	S.A. Echevarría (SAE) Olarra (OLSA) Babcock Wilcox (BW)	Bizkaia	% 80
	Pedro Orbegozo (POSA) Aceros de Irura (IRURA) Fundiciones Echeverría (FESA) A.y F. de Azcoitia (AFORA) Patricio Echeverría (PESA)	Gipuzkoa	
	Forjas Alavesas (FORAL) Aceros de Llodio (LLOSA)	Araba	
Altzairu arrunta	Nervacero Laminor	Bizkaia	% 40
	Union Cerrajera (UCEM) Esteban Orbegozo (ORBEGOZO) Aceros Corrugados (CORRUGADOS) Aristrain-Olaberría Marcial Ucín (UCIN)	Gipuzkoa	
	Arregi	Araba	

industriari egotzi ohi zaizkion ezaugarri batzu (hala nola energi menpekotasuna, kanpoarekiko irekitasuna, etab.) siderurgiari zor zitzaizkion neurri handi batean.

Gu hemen, dena dela, Administrazio Zentralak birmoldaketan jarritako hiru azpisektore siderurgikoez bakarrik arituko gara: Siderurgia osatu edo integralaz, Altzairu arrunteko siderurgia osagabe edo ez-integralaz eta Altzairu berezietako siderurgiaz. Hiru azpisektore hauetan 1985ean aritzen ziren euskal lantegirik garrantzizkoenak bigarren laukian jasotzen dira. Bigarren lauki horretatik ondorio garrantzitsu bat atera

daiteke: Espainiako siderurgia EAEn kontzentratuta zegoela (altzairu bereziak, batez ere); edo, bestela esanda, espainiar estatuaren barruan EAEn ekonomia siderurgian espezialdua zegoela.

Siderurgiaren krisiaren ezaugarriak

Krisian dagoen enpresa edo sektore batean, hiru motako arazo ekonomiko aurki daitezke (3. laukia):

1) Soberazko ekoizpen-ahalmena.- Sektore batean krisia ager daiteke ekoizpena kontsumoaren gainetik gelditzen delako edo, bestela esanda,

eskaintza eskaria baino askoz handiagoa delako. Gehiegiko ekoizpen-ahalmen hori arrazoi askorengatik ager daiteke: teknologia edo kontsumo-moldeak aldatu direlako (adibidez, orain arte burdinazkoak ziren kotxeen pieza edo alde batzu aurrerantzean plastikozkoak egiten direlako); oker zeuden aurrirustapen batzutan oinarrituz, ekoizpen-ahalmenak handitzeko inbertsioak egin direlako; munduko merkatuetan herrialde ekoizle berriak agertu direlako; etab.

Arazo honi aurre egiteko, eskuarki ekoizpen-ahalmena murriztu ohi da: instalazioak itxi egiten dira, lanpostuak gutxitu,... Baina arazo honen kontrako neurriak ez dira beti negatiboak izan behar eta ez dira nahitaez ekoizpen-ahalmenen murrizketetara mugatu behar. Izan ere, eskaria eta eskaintzaren arteko ez-doiketa hori gainditzeko, enpresek edo Gobernuak merkatu berrietara iristeko merkatal sareen antolakuntza bultzatzea lezakete, edota eskaria suspertzeko politikak abian jarritzakete,...

2) Merkatuak eskatutakoa ez ekoiztea.- Batzutan arazoa ez datza gehiegiko ekoizpen-ahalmena izatean, merkatuak eskatzen duena ez produzitzean baino. Hau da, bere maila teknologikorengatik, kalitatearengatik, diseinuarengatik, eta abararengatik merkatuak gero eta gehiago eskatzen dituen produktuak ekoizteko beharrean, enpresak eskari gutxikorra duten produktu helduak ekoizten jarraitzen duelako.

Arazo honi aurre egiteko ez da, aurreko kasuan bezala, ekoizpen-ahalmena ezinbestez gutxitu behar. Arazo horri aurre egiteko egokiagoa dirudi I+G, teknologia, diseinua, marketina eta abar bultzatzeak. Oso argigarria da, esaterako, Europako hainbat herritako ehungintzarekin gertatutakoa: Asiako hegoekialdeko herrietatik zetozen produktuekin prezioetan ezin konpetitu zuteneko gero, kalitate gutxioko ehunkien ekoizpena bazter utzi zuten eta moda, diseinua, etab. zuten produktuak ekoiztera igaro ziren, ehungintzaren ekoizpen-maila gutxitu gabe.

3) Kostu-arazoa.- arazoa kostuetan datzanean, produktu bat ekoizten eta saltzen jarrai daiteke, baina horretarako ekoizpen- eta merkatu-ratze-kostuak jaitsi behar dira. Eta kostuak jaisteko, kudeamendua aldatu beharko da, edota ekoizpenak espezialdu, enpresak kontzentratu, eraberritzeko inbertsioak egin, plantillak murriztu, pasiboak osasundu,...

Gehienetan, krisian dauden enpresa eta sektoreetan, hiru arazo hauek aldi berean eta elkarri josita aurki daitezke. Hala ere, sektore batetik bestera arazo bakoitzak izaten duen garrantzi edo larritasuna desberdina izan ohi da eta, horrengatik, sektore bakoitzaren krisiari eman behar zaion tratamenduak desberdina izan behar du.

3. Laukia: Krisian dagoen enpresa edo sektore batean aurkitu ohi diren arazo ekonomikoak

Arazoa	Zergatia	Konponbidea
Gehiegiko ekoizpen-ahalmen	<ul style="list-style-type: none"> -Tecnologia edo kontsumo-moldea aldatu delako -Aurrirakuste okerretan oinarrituz ekoizpen-ahalmena handitzeko inbertsio itzelak egin direlako -Beste herrialdeetan lehiakide berriak agertu direlako -... 	<ul style="list-style-type: none"> -Ekoizpen-ahalmena gutxitu. Ondorioa: instalazioak itxi, enplegua doitu,... -Merkatu berrietara heltzeko merkatal sare berriak eratu -Eskaria suspertzeko politikak abian jaurri -...
Ekoizkin-gama desegokia	<ul style="list-style-type: none"> -Zaharrak eta helduak izateagatik ikean ekoizkinetarik ekoizkin berrietara jauzi egiten jai ez delako 	<ul style="list-style-type: none"> -Ikerketa eta garapenean, teknologia eta prozesu berrietan, diseinu eta modan, marketinean... inbertitu
Kostu garaiak	<ul style="list-style-type: none"> -Kuadeantza txarra -Instalazio zaharkituak eta ez-lehiagarriak -Enpresa txikiak eta espezialdugabeak -Lan-kostu handiegia -Finantz kostu handiegia -... 	<ul style="list-style-type: none"> -Kudeatzaileak eta egipidea aldatu -Kostuak eta energi kontsumoa jaisteko inbertsioak egin -Enpresak kontzentratu eta ekoizpenak espezialdu -Plantilak doitu eta alokairuak izoztu -Zorren kitapenak eta gerorapenak lortu, kapital-ekarpenak,... -...

4. Laukia: krisian sartu ziren euskal enpresa siderurgikoen arazoak.

	Gehiegiko ekoizpen-ahalmena	Ekoizkin-gama desegokia	Kostu garaiak
Siderurgia osatua	Ez	Pixka bat	Bai
Altzairu bereziak	Bai	Pixka bat	Bai
Altzairu arruntak	Bai	Pixka bat	Bai*

* Oso instalazio berriak eduki arren, enpresa hauen finantz, amortizazio- eta lan-kostuak oso garaiak ziren eta egipidea ona ez.

Dakugasun nola aplikatzen zaien krisi sektorialeko buruzko eskema hau hiru azpisektore siderurgikoei (4. laukia):

A) Siderurgia osatua.- European ez bezala, Espainiako siderurgia osatua ez zegoen altzairugintzan soberazko ekoizpen-ahalmenik. Hala ere, Espainiako siderurgia osatua ez zuen beti merkatuak eskatzen zituen produktuak ekoizten eta, alde horretatik, ekoizpenak egokitu eta berresleitu behar zituen: produkzio-lerro batzutan, berriz, gabezia eta mentsak (adib. bobinak). Arazorik larriena, dena dela, espainiar siderurgiaren ekoizpen-kostu altuetan zetzan.

Bestalde, azpisektore hau osatzen zuten hiru enpresak krisi larri batek joak bazeuden ere, oso bestelakoa zen enpresa batetik bestera bidegarritasunera itzultzeko zeukaten posibilitatea:

-AHM lantegiaren ezbidetagarritasuna gandi ezinezkoa zen (lantegi honetako hotzean ijaztejo trena oso konpetitiboa bazen ere);

-AHVren egiturazko hutsak hain ziren sakonak, non ez bait zirudien enpresa hau bideragarri bihurtu zitekeenik;

-Ensidesaren arazoak oso larriak ziren baina, hartan beharrezko doikuntzak egiten baziren, atzera ere bideragarri bihurtu zitekeen.

B) Altzairu arrunteko siderurgia osagabea.- Azpisektore honen arazorik gorriena soberazko ekoizpen-ahalmena zen. Ekoizpenak dibertsifikatuz eta berresleitzuz kalitate handiagoko altzairuak produzitzeari ekinez, adibidez) arazo hori apur bat gutxitu zitekeen, baina ez gaudituz.

Ekoizpen-kostuei dagokionez, azpisektore honetako enpresen artean bi talde bereiz zitekeen:

-Enpresa batzuek (Nervacero, esaterako), 70ekoek Ekintza Hitzartuaren babesean inoren baliabidez finantziatutako inbertsio itzelei esker, oso instalazio modernoak zituzten; baina enpresa horiek ez ziren errentagarriak, zeren eta instalazio moderno horiek azpierzabiltzen bait zituzten (eskaria txikia zelako), finantz eta amortizazio-gastu handiagoak bait zeuzkaten eta maiz langile gehiegi eta kudeamendu txarra bait zuten.

-Beste enpresa batzuk, ikuspuntu batetik txarragozat jo zitezkeen instalazioak eduki arren, irabaziak izaten jarraitu zuten 1986 arte, haien pasiboko egitura osasundua bait zegoen, finantz eta amortizazio-gastu gutxi jasan behar bait zuten, eta plantilak doituak eta kudeamendu egokia bait zuten.

C) Altzairu bereziak.- Azpisektore honetako enpresen gehiegizko ekoizpen-ahalmena ia altzairu arrunteko siderurgia osagabearena bezain handia zen, nahiz eta 1986 arte birmoldaketako planek eta azterketek arazo horri behar hainbat arretarik ez eman. Gainera, sektore honetako enpresen merkatua are gehiago murriz zitekeen geroan, baldin eta altzairu arrunteko enpresek (kostu txikiagoz ihardun ohi zutenak) beren instalazioetan zenbait altzairu berezi (kalitate apalenetakoak, noski) produzitzeari ekiten bazioten; mehatxu horren aurrean altzairu berezietako enpresei gelditzen zitzaien irtenbidea jakina zen: beren ekoizkinen kualifikazio eta balio erantsia handitzea eta beren ekoizkinak

dibertsifikatzen saiatzea. Derragun, azkenik, hirugarren arazoari dagokionez, azpisektore honetako enpresen ekoizpen-kostuak handiagoak zirela Europako beste zenbait lehiakiderenak baino.

Euskal siderurgiaren birmoldaketa eta etorkizuna

Hiru azpisektore siderurgikoen birmoldaketa nola egin den bostgarren laukian azalduta datorrenez gero, ez gara hemen berriz horretaz ariko.

Aipatutako laukiaren irakurketatik ondoriozta daitekeenez, siderurgia osatuan eta altzairu berezietan egindako doikuntzak ez bide dira aski izango sektorea bideragarri bihurtzeko.

Siderurgia osatuaren kasuan AHVek dituen egiturako akats konpongetzek (Instalazioen sakabaketa, instalazioen tipitasuna, portu handi baten abantailaz ezin baliatzea...) haren erdi-epeko bideragarritasuna zalantzan jartzen dute. Dela 1988an eman zaion diru publikoagatik, dela urte hauetan merkatu siderurgikoak bizi duen "boom"agatik, dela haren inbertsio-plana ia burutua izateagatik... AHVen irabazi-galeren kontua hobetuko du hurrengo urteetan; baina, ene irudiz, erdi-epera haren egiturazko akatsak berriz ere agerira aterako dira eta doikuntza gehigarriak (instalazio batzu ixtea, etab.) egin beharko dira.

Altzairu berezien kasuan, orain arte egindako doikuntzak eta 1988an bertan FESAn, IRURAn eta BWen onartu diren

5. laukia: Birmoldaketa siderurgikoaren historia (I)

Birmoldaketa-politika orokorra	Siderurgia osatua	Altzairu bereziak	Altzairu arruntak
<p>1978-1980 F. Abril Martorell UCD: enpresaz enpresaz</p>	<p>60/1978 legearen bidez: -AHM nazionaldu -Ensidesa eta AHV-ri finantz laguntzak Ez da egiten inongo doikuntzarik (instalazio zaharkituak itxi, inbertsio berriak egin, plantilak doitu...) eta finantz laguntzak berak urriak eta desegokiak dira.</p>	<p>SAE eta LLOSARI kreditu ofiziala BW: kreditu ofiziala eta nazionaldu</p> <p>2. Ekintza. Hitzartuko enpresentzat kreditu ofizial gehigarria.</p> <p>Ez da ia doikuntzarik egiten eta sektore hauen arazo nagusia (gehiegiko ekoizpen-ahalmena) larriatzen da. Laguntza hauek, bestalde, lehiaketa desleiala ahalbidetzen dute eta artean errentagarri ziren enpresen egoera okerragotu.</p>	<p>Nervacero-ri kreditu ofiziala</p>
<p>1980-1982 I. Bayón UCD: sektorea</p>	<p>Hartutako finantz, merkatal eta lan-osasunetako neurriak ez dira askitaez dira guztiz betetzen.</p> <p>Ez da birrindustrialtze-neurririk hartzen (ezta beharrezko inbertsioak mugatu ere)</p>	<p>Aro honetan sektore honetarako diseinatzen den birmoldaketa-prozesua PSOEko Gobi- nuak ereduizat hartuko du bere birmoldaketa-politika orokorrerako.</p> <p>Birmoldaketa-planak hiru ekitaldi bereizitatu ditu:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Kimka larrian zeuden enpresetan (SAE, LLOSA, POSA eta OLSA), lan-, finantz eta egipide eta kontroleko osasunaketa. 2. Osasunaketa sektoriala (erosketa-, salmenta- eta ekoizpen-alorretan ekintza elkartuen bidez). 3. Birrindustrialtze plano (inbertsio eta enpresa-kontzentrazioa). <p>Baina aurrikusitako plan horretatik lehen ekitaldiko ekintzak bakarrik burutu ziren honetan, eta gogor xamarak izan baziren ere, ez zitoten gehiegiko ekoizpen-ahalmeneko arazoari konponbiderik eman (ez ze instalaziorik edo enpresarik itxi) Gainera, eta 3. ekitaldietako neurrien abian jartzea -bestea bezain garrantzitsua- atzeratu zen.</p>	<p>Enpresek proposatutakoaren kontra, batez ere Nervacero-ren arazoa nolabait ebaztearren, guztiz desegokia zen birmoldaketa-dekretua onartu zuten Administrazioak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Nahiz haren gutxitzea izan, bi urte beranduago ekoizpen-ahalmena gutxitu beharrean handitua zen. - Ez dira enpresak kontzentratzen, plantilak doitzen... - Nervacero-ri eta UCEMi emandako laguntzak legez kontrakoak ziren. - Ez negoziatua eta diskriminatzailea zen. <p>-Itxuraz sektoriala, egitez enpresaz-enpresakoa.</p>

5. Laukia: Birmoldaketa siderurgikoaren historia (II)

Birmoldaketa-politika orokorra	Siderurgia osatua	Altzairu bereziak	Altzairu arruntak
<p>1983-1986 C.Solchaga PSOE:sektorea</p>	<p>-Lan- eta finantz osasunketa sakondu eta instalazio zaharkituak itxi egiten dira, baina ez behar hainbat. -Inbertsioak onartu eta abian jartzen dira baina erizpide teknikoetan baino, erizpide sozial-politikoetan oinarritzen dira (AHV ez itxia) -Enpresen arteko lankidetzan aurrerapenak txikiagiatu dira (AHM Ensidésaren eskumenpeko bihurtzen da, baina Ensidésaren eta AHVren artean ez da inongo kooperaziorik ematen).</p>	<p>1984-ean sektore honeitarako onartzen den birmoldaketa-plana berriz ere aitzindaria da bere borobiltasunagatik. Eta guzuzteta-ko neurriak aurrikusten ditu: industrialk teknologikoak, komertzialak, laboraral eta finantzarioak. Errealitateak, ordea, oso urrutu gelditu zen aurrakusitakotik: -Eskari-aurrikusapenak puztuta zeuden eta egin beharreko doikuntzak (plantilak murriztu, instalazioak itxi...) azpibaloratu zituzten. - Enpresa-kontzentrazioa astiroegi joan zen aurrera. - Inbertsioak ikuspegi sektorialik gabe egin ziren (ondorioa: bikoiztasunak, ekoizpen-ahalmenen gehitzeak...), - Gehiegiko ekoizpen-ahalmenek merkatal antolatze saioak eragozti zituzten. - Ez zen inarduera berririk sustatu. ...</p>	<p>Ustegabeko gertaera koiuntural batzuk (dolarren igoera, nazioarteko eskariaren hazkunde...;) sektorearen behin-behineko egoerara hobetzen dute urte hauetan eta, ondorioz, birmoldatzeko eskeak baretzen dira. Errotiko arazoek, ordea, hor diraute. Gobernuak, beste sektore batzutan birmoldaketak sortzarriko gatazkatasuna ikusiz, ez du ahalagin handirik egin, beharrezkoa izan arren, enpresa gutxiak eskatzen duen birmoldaketari ekiteko.</p>
<p>1986-1988 L.C. Croissier PSOE: EEEn sartu ondoko birmoldaketa.</p>	<p>Europako Elkartearen onespena jaso behar izan duten bideragarritasun-plan berriak onartzen dira Ensidésa taldearentzat eta AHVrentzat. Horietan, finantz eta lan-osasunketako neurriak aurrikusten dira. Baina MacKinseyk zioenez, oso zaila dateke enpresa hauek bideragarri bihurtzea neurri osagarriarik (funtsean, Ensidésaren eta AHV-ren arteko kooperazio eta koordinazioa) haritzen ez bada (eta neurri horiek ez dira hartu). Bestalde, plan horien hipotesi eta balizko batzu (a.b., prezioen saldoaren eboluzioari buruzkoak) ez dira errealistak. Ene ustez, erdi-epera AHVen bideragarritasuna berrino ere eztabaidan jarriko da eta doikuntz neurri gehigarriak hartu beharko dira.</p>	<p>Europako Elkartearen onespena jaso behar izan duten bideragarritasun-plan berriak onartzen dira ACENOR eta FOARSARENtzat. FOARSAREN plana, ordea, ACENOREnarekin kontraesanean dago eta erizpide teknikoetan baino, erizpide sozial-politikoetan oinarrituta dago. Instalazioak itxeko onartu diren laguntza batzuez baliatuz, badimudi HESA eta IRURA itxiko direla eta BW ijazgintza bertan behera utziko duela. Hala ere, ekoizpen-ahalmenen gutxitzeak ez bide dira aski eta doikuntza gehiago (instalazio-itxetak, etab.) egin beharko da.</p>	<p>Zenbait gertaerak (dolarren beharrekada, petroleoaren prezioen jaitsiera, zergarinketa-ren desagerpena...) aurreko onginoari amaia ematen diote, eta, enpresa guztiak ukitzean, egiteke zegoen birmoldaketari ekitera behar-tzen du. Administrazioak ekoizte-ahalmenak gutxitzeko laguntza batzu onartu ditu. Enpresen artean 1987ko azkernaldian irekitako negoziatze-prozesuaren ondoren badimudi hainbat enpresa eta instalazio itxiko dela (Euskal Autonomi Elkartearen, a.b. CORRUGADOS eta LAMINOR enpresak, a.b. beste zenbait instalazio) eta gelditu diren kontzentrazio bortitza gertatuko dela (Nervacero CELSAREN taldean sartu: UCEM, Aris-train-en, SISEren eta IC-Oren eskutara igaro; UCINek Azma erosi du; ORBEGOGO oraindik erabaki gabeko norbaiten eskuetara igaroko da...;) Langile-doikuntzak ere handiak izango dira. Ondorioz: geldituko diren enpresak bideragarriak eta errentagarriak izango dira eta nazioarte-mailan txiki lehiagarriak.</p>

ekoizpen-ahalmenen murriztea ez bide dira aski izango azpisektore honen krisia gainditzeko. Horregatik, ACENOR taldean doikuntza gehiago egin beharko dira (talde honetako lantegiaren bat edo beste desager liteke erdi-epera).

Altzairu arrunteko siderurgia osagabea, oster, guztiz doitu gelditu da eta, dirudienez, bizirik dirauten enpresak hurrengo urteetan oso

errentagarriak izango dira. Hala ere, egoera honetara iristeko doikuntza gogorra egin behar izan da 1988an: enpresa batzu itxi dira (Aceros Corrugados, Laminor eta hainbat birrijezle), beste batzutan murrizte galantak egin dira (Nervacero, Esteban Orbegozo, Unión Cerrajera...), eta, esan beharrik ez, horren ondorioz lanpostu asko desagertu dira.